



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 12a

28. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Miguel Sanz Sesma jaunak Audenasako eta Bodegas Sarriako lehendakari izateari uzteko, legezko bateraezintasuna dela medio. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakitekoa zergatik ez zen jo Espainiako ereserkia Foruzaingoaren Eguna ospatzeko ekitaldian, Eloy Villanueva Cruz jaunak egin (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldearen kudeaketaren emakida kentzeari eta ospitaleratutako gaixoen elikadura egokia bermatzeari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egin (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko ikerketa batzorde bat eratzeko beharraren aurka agertzeari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin (6. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak lehendakariak dimititzeko asmoa ote duen, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko gaixoen dietak baliozkotzeari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egin (7. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, zenbait azpiegitura aztertzeak, zalantzarik ez errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dieneak. Barne funtzionamendurako arauak (8. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (9. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Miguel Sanz Sesma jaunak Audenasako eta Bodegas Sarriako lehendakari izateari uzteko, legezko bateraezintasuna dela medio.**

### *PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Miguel Sanz Sesma jaunak Audenasako eta Bodegas Sarriako lehendakari izateari uzteko, legezko bateraezintasuna dela medio.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2013ko otsailaren 28ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 3.bis artikulua honakoa ezartzen du: "1. Kargua utzi eta ondoko bi urteetan goi karguek ezin izanen dute jarduera pribatueta aritu, karguan zeudenean haiekin zerikusia duten espedienteetan ebazpenik eman bazuten, ezta

laguntza teknikorako, zerbitzuko edo antzeko kontraturik egin ere administrazio publikoekin."

Sanz jauna 1996-08-18an iritsi zen Nafarroako Gobernuo lehendakaritzara, eta 2011-06-22an utzi zuen kargua. Ez dira bi urte pasa kargua ber jarduna amaitu zuenetik.

1997-12-15ean, Sanz jauna lehendakari zuen Nafarroako Gobernuak erabaki zuen A-15 Nafarroako Autobidearen emakida administratiboaren kontratua aldatzea. Aldaketa hori, berez, emakida administratiboaren luzatzea izan zen eta, horrenbestez, Audenasa autobide horren kudeaketaz gaur egun arduratzearen funtsa eta oinarria da.

1997-12-15eko luzapena, gainera, doakoa izan zen, Nafarroako Kontseiluaren 2000ko azaroaren 6ko 45/2000 txostenak azpimarratu bezala, non hitzez hitz hauxe esaten baita: "... Nafarroako Gobernuaren 1997ko abenduaren 15eko erabakiak, A-15 autobidearen emakida-kontratua aldarazi zuenak, ez zuen sortu ez gastu konpromisorik, ez funtsen edo balioen mugimendurik ere, kontu-hartzailetza zerbitzuen alde aurreko txostena nahitaezko egiten zutenik. Hau da, Audenasaren kudeaketak dirau Sanz jauna lehendakari zuen Nafarroako Gobernuaren doako erabaki baten zuzeneko ondorio gisa.

Bodegas Sarriari dagokionez, Sanz jauna lehendakari zuenean Nafarroako Kutxak erositako enpresa bat da. Nafarroako Kutxaren lehendakari-tza Sanzek "legeak aginduta" bete duen kargu bat izan da, Nafarroako Gobernuo lehendakaria baitzen; eta, horrenbestez, gai honetan, aplikatzekoa zaio Nafarroako Bateraezintasunei buruzko 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluan jasotako "goi karguaren" definizioa.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren urratsak egin ditzan Miguel Sanz Sesma jaunak utz diezaion Audenasako lehendakaria izateari, kargu horretan egoteko legezko bateraezintasunak eragiten baitio.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren urratsak

egin ditzan, Nafarroako Aurrezki Kutxaren Fundazioa kontrolatzen duen heinean, Miguel Sanz Sesmak utz diezaion Bodegas Sarriako lehendakari izateari, kargu horretan egoteko legezko bateraezintasunak eragiten baitio.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakitekoa zergatik ez zen jo Espainiako ereserkia Foruzaingoaren Eguna ospatzeko ekitaldian.***ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zergatik ez zen jo Espainiako ereserkia Foruzaingoaren Eguna ospatzeko ekitaldian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko talde popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak

gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan heldu den martxoaren 14ko Osoko Bilkuran:

Nafarroako Parlamentuak ondoko erabakia onetsi zuen 2012ko azaroaren 23ko Osoko Bilkuran: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren ekitaldi solemneetan Espainiako ereserkia ere jo dadin, Nafarroako ereserkiaz gain"

2013ko martxoaren 2an Foruzaingoaren Eguna ospatu zen Kultura Departamentuaren klaustro isabelarrean.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

Zergatik ez zen jo Espainiako ereserkia Foruzaingoaren Eguna ospatzeko ekitaldian?

Iruñean, 2013ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketaren emakida kentzeari eta ospitaleratutako gaixoen elikadura egokia bermatzeari buruzkoa.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukalde- en kudeaketaren emakida kentzeari eta ospitaleratutako gaixoen elikadura egokia bermatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den martxoaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ia bi hilabete pasatu dira Mediterránea de Catering enpresak Nafarroako Ospitaleguneko sukalde- eta elikadura-zerbitzua bere gain hartu zuenetik, eta oraindik ere problema larriak gertatzen ari dira zerbitzuan. Dietak egoera txarrean zerbitzatzen ari dira: beroegiak, hotzak, eginegiak, gordinik, urriak eta/edo desegokiak.

Osasun Departamentuak konfiantzazko boto bat eman zion enpresari; hala ere, denbora nahikoa eta gehiago joan da, eta egoera ez da hobetu.

Kenduko al dio Nafarroako Gobernuak Mediterránea de Catering enpresari Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketaren emakida? Edozein kasutan, zer neurri urgente hartuko ditu Gobernuak, ziurtatze aldera ospitaleratutako gaixoen elikadura egokia izanen dela?

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko ikerketa batzorde bat eratzeko beharraren aurka agertzeari buruzkoa.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko ikerketa batzorde bat eratzeko beharraren aurka agertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar - Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, martxoaren 14ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernu-ko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Noiz eta modu eztabaidaezinean frogatuta gelditu denean faltsua dela urtetan errepikatutako argudioa, hau da, Nafarroako Aurrezki Kutxa entitate pribatua zela, eta azken albisteen eta gertakari judizial, administratibo eta politikoen argitan, oraindik ere uste al duzu Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko ikerketa batzorde bat eratzeko beharraren aurka agertu behar duzula, argitu beharko lituzkeena ez soilik erantzukizun politikoa eta sozietatearenak, baizik eta, halaber, zer egoeratan dauden merkataritza-partaidetzak eta arte-funtsak, eta eginiko kudeaketa ebaluatuko lukeena?

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuko lehendakariak dimititzeko asmoa ote duen.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuko lehendakariak dimititzeko asmoa ote duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako gizartea erabat txunditurik ari da ikusten agintari politiko jakin batzuen jokabidea, nabarmen gelditzen ari baitira haien dieta-kobratze eskandaluzko eta arauz kanpokoak, eta ulertzen du jokaera horiek ez direla bateragarriak kargu publikoetan jarraitzearekin. Horregatik, parlamentari honek jakin nahi du zeren esperoan zauden dimititzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko gaixoen dietak baliozkotzeari buruzkoa.**

### *SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Ospitaleguneko gaixoen dietak baliozkotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den martxoaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Egia al da, Ospitaleguneko Dietetikako buru Olondriz doktoreak esan zuen moduan, martxoaren 4ra arte Ospitaleguneko gaixoen dietak baliozkotu gabe egon zirela?

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Lan-taldea, zenbait azpiegitura aztertzekoa, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dienekoak.**

*BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen lan-talde baten barne funtzionamendurako arauak. Lan-taldea da “zenbait azpiegitura aztertzekoa, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dienekoak”. Arauak lan-taldeak berak onetsi zituen, 2013ko martxoaren 7an eginiko bilkuran. Hona testua:

“**Lehena.** Lan-talde honen xedea da txosten bat egitea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkezten diren boto partikularrekin batera –baldin eta halakorik aurkezten bada–, eta Mahaiak Batzordeko kideei bidaliko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

**Bigarrena.** Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

(UPN parlamentu-taldea)  
Carlos García Adanero jauna  
Ordezkoa: Amaya Otamendi Claramut andrea

(SN parlamentu-taldea)  
Gregorio Galilea Arazuri jauna  
Ordezkoa: Maite Esporrín Las Heras andrea

(Bildu-Nafarroa parlamentu-taldea)  
Koldo Amezketa Díaz jauna  
Ordezkoa: Maiorga Ramírez Erro jauna

(Aralar-NaBai parlamentu-taldea)  
Txentxo Jiménez Hervás jauna  
Ordezkoa: Juan Carlos Longás García jauna

(PPN parlamentu-taldea)  
Ana Beltrán Villalba andrea  
Ordezkoa: Eloy Villanueva Cruz jauna

(I-E parlamentu-taldea)  
José Miguel Nuin Moreno jauna  
Ordezkoa: Txema Mauleón Echeverría jauna

(Atxiki gabeko parlamentaria)  
Manu Ayerdi Olaizola jauna

**Hirugarrena.** Lan-taldeak Carlos García Adanero jauna hautatu du lehendakari, zeina, kasu bada, lan-taldeko beste kide batek ordezkatu ahal-ko baitu.

Lan-taldeko idazkaria izanen da lan-taldeari laguntzen dion legegaria, edo haren ordezkoa.

**Laugarrena.** Lan-taldeak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, kide-eledun bakoitzak, bere parlamentu-taldea zenbat foru parlamentarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu lan-taldean.

**Bosgarrena.** Lan-taldeak laguntza eta lankidetzat eskatu ahal-ko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezkeen eskatu ahal-ko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen. Orobat eskatu ahal-ko du gaian aditu diren beste batzuk ere etor daitezkeen.

**Seigarrena.** Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko die.

**Zazpigarrena.** Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori 2013ko ekainaren 7an bukatu beharko du.

**Zortzigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea”

Iruñean, 2013ko martxoaren 7an  
Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimendu-lehiaketa bidez betetzekoa.**

### **Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Lehendakaritza honek, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdirako eskaerak aurkezteko epea bukatuta –deialdia 2013ko otsailaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–,

#### **EBATZI DU:**

**1.** Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea, deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat. Horra:

#### Onartuak:

Ansorena Urriza, Antonio

#### Baztertuak:

Inor ez.

**2.** Ezartzea 2013ko apirilaren 8a izanen dela deialdiko 6.3.1. oinarriak ezartzen duen lan-oroitidazkia Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean aurkezteko azken eguna.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera





